

## IKASTETXEAK EUSKARALDIAN

Lehen Hezkuntzako ikasleek Euskaraldian parte har dezaten zenbait proposamen



### Proposamenak

---

- 1- Ikasleekin sentsibilizazio saioak Euskaraldiaren aurretik eta ondoren
- 2- Euskaraldiko egunetarako zenbait ideia
- 3- Gurasoen eta ikastetxeko beste eragileen inplikazioa bilatzea
- 4- Herriko Euskaraldiko batzordean eta ekitaldietan parte hartzea

*Hainbat ikastetxeetatik eskatu dizkiguzue aholkuak eta ideiak Euskaraldiaren inguruan. Seguruenik hainbat eskola eta institututan dagoeneko zuen bidea garatzen ariko zarete eta ziur planteamendu onak izango direla. Ebetetik ekarpen bat egiten ahalegindu gara interesa eduki dezakezuenok kontuan hartu edo erabili ahal izateko .*

## Zer hartu kontuan?

---

Euskaraldia 16 urtetik gorakoentzako ekimena da. Ariketa sozial horren helburua, berriz, helduen hizkuntza-ohituretan eragitea eta ezaugarri guztiak horren arabera landu dira.

Beraz, ez da komenigarria Euskaraldia besterik gabe haur eta nerabeei bere horretan eskaintzea:

- Ahobizi eta Belarriprest rola betetzea 11 egunetan oso zaila egingo zaie. Behar bada testuinguru euskaldunetan ez, baina bai beste guztietan. Ez da euskararen aldeko kanpaina bat, hori baino askoz gehiago da.
- Helduei begirako ekimena haurrentzako jai bat bihurtzeko arriskua nabarmena da eta, gainera neurri handi batean, eskolarekin lotutako zerbait.

Baina, bestalde, Euskal Herrian azken hamarkadetan sortu den ekimen berezietakoa izango da eta hedapen oso handia izango duena. Ondorioz:

- Hainbat eta hainbat herritan Ahobiziak eta Belarriprestak kalean oso nabarmen ikusiko dira. Hizkuntza-ohiturei dagokionez ikasleek inoiz izan dituzten baino erreferente eta eredu gehiago izango dituzte inguruan.
- Aukera bikaina da haurrekin eta nerabeekin hizkuntza-ohiturei buruz hitz egiteko, beraiekin saiakeraren bat egiteko edo beraiek eragile bihurtzeko.

Ebetetik honako proposamena egiten dizuegu:

- Ekimena bere horretan ez kopiatu eta aurrera eraman. Ikasleei begira ez da egokia eta herri mailako ekimenean eragina izan dezake.
- Baina ekimena egokitu eta baliatu liteke ikastetxeen eta institutuen helburuei begira.

## Proposamenak

---

- 1.- Ikasleekin sentsibilizazio saioak Euskaraldiaren aurretik eta ondoren
- 2.- Euskaraldiko egunetarako zenbait ideia
- 3.- Gurasoen eta ikastetxeko beste eragileen inplikazioa bilatzea
- 4.- Herriko Euskaraldiko batzordean eta ekitaldietan parte hartzea

<b>1.- LHko ikasleekin sentsibilizazio saioak Euskaraldiaren aurretik eta ondorea</b>	
<p><b>Aurkezpena</b></p>	<p>Euskaraldia aukera ona izango da ikasleekin euskarari buruz eta hizkuntza-ohiturei buruz hitz egiteko. Beraien inguruan ikusiko dute bai guraso edo gertuko enaldetik, karteletan, ekitaldietan, telebistan eta abar.</p> <p>Hori baliatuz, ikasleekin hiru sentsibilizazio saio egiteko proposamena aurkezten dizuegu.</p>
<p><b>Lehenengo saioa (azaroan)</b></p>	<p>Ikasleei euskararen inguruan hausnartu nahi dugula esango diegu. Euskaraz ikasten dute baina hainbatek eskolatik kanpo ez dute euskaraz entzuteko eta erabiltzeko aukera gehiegi, eta beste batzuek bai.</p> <p>Galderak egingo dizkiegu eta denon artean hitz egingo dugu. Erantzun nagusienak arbelean ere idatz genitzake. Hauxe da galdera nagusia:</p> <p style="text-align: center;"><b>Eskolatik kanpo non erabiltzen duzue euskara?</b></p> <p>Iritziak eman ditzatela eta guk galderak eginaz osatuko dugu zerrenda hori: Eskola orduz kanpoko jarduerak euskaraz egiten al dituzte? Zeintzuk? Telebista euskaraz ikusten dute? Zer? Musika euskaraz entzuten al dute? Zer? Kultur Etxean-Kiroldegian edo kalean-plazan norbaitekin egiten al dute euskaraz? Norekin?</p> <p>Arreta berezia jarriko diogu etxeko egoerari:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Zeintzuk egiten dute etxean euskaraz? Amarekin-aitarekin, osaba-izebekin, aiton-amonekin...</li> <li>- Gurasoei dagokionez? Noren gurasoek dakite ondo euskaraz? Nortzuk dakite pixka bat? Zeintzuk ez dakite? <i>(Tonua ondo zaindu: ez dugu nahi euskaraz ez dakiten gurasoen seme-alabak gaizki sentitzea, soilik deskripzio moduko bat egin nahi dugu)</i></li> <li>- Gurasoek dakiten euskara hori erabiltzen al dute? Zer iruditzen zaie? Etxean, kalean, lagunekin eta abar erabiltzen al dute? (ondo dakitenek harremanak euskaraz ote dituzten, gutxi dakitenek apur bat behintzat erabiltzen ote duten...) Ikasleen pertzepzioak jaso nahi ditugu.</li> </ul>

	<p>Gurasoen gaiarekin jarraitu nahi dugula esango diegu. Horretarako, orri bat emango diegu gurasoekin etxean bete behar dutena. Hurrengo saiorako beteta ekarri behar dute.</p>
<p>Etxean gurasoekin egitekoa</p>	<p>Eranskin moduan txertatu da fitxa</p>
<p>Bigarren saioa (azaroan)</p>	<p>Etxean bete dituzten galderei buruz galdetuko diegu:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Zeintzuk dira aipatu dituzten hitzak? Arbelean jarriko ditugu</li> <li>- Zeintzuk dira esaldiak? Arbelean jarriko ditugu</li> </ul> <p>Zaila egin al zaie gurasoei hitz eta esaldi zerrenda egitea? Erantzuna, seguruenik, ezezkoa izango da. Beraz: <b>gurasoek euskara asko dakite. Euskaraz oso gutxi dakitela diotenek ere, <u>beraiek uste dutena baino euskara gehiago dakite.</u></b> Hori poztekoa da. Gure gurasoak ere, gehiago edo gutxiago, baina euskaldunak–euskaradunak dira.</p> <p>Baina erabiltzen al dute? Guk zuei euskara erabiltzeko eskatzen dizuegu eta hainbat gurasok ere eskatzen dizuete baina beraiek dakiten euskara erabiltzen al dute?</p> <p>Iritzi trukea egingo dugu:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Non edo norekin aipatu dute asko?</li> <li>- Non edo norekin aipatu dute gutxi?</li> <li>- Gutxi erantzun duten kasuetan, zergatik?</li> </ul> <p>Gurasoen arrazoen inguruan hitz egingo dugu: Hori horrela al da? Aldatu al daiteke? Zaila edo erraza da?</p> <p>Hortik abiatuz Euskaraldiari buruz hitz egingo dugu:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ba al dakite zer den Euskaraldia? Zer datorkie burura hori entzundakoan?</li> <li>- Euskaraldiari buruzko azalpen bat emango diegu: 11 egun izango direla, euskararen erabilera indartu nahi dela, helduentzat dela eta Ahobizi eta Belarriprest figurak ere azalduko dizkiegu.</li> <li>- Beraien gurasoek, lehengusuek edo ezagunen batek izena eman ote duen galdetuko diegu.</li> <li>- Une ona izan daiteke Euskaraldiko izen–emate orriak eman eta proposamen hau egiteko: nahi duzuenok izen–emate orri batzuk hartu eta zuen ingurukoei banatu. Euskara ulertu behar dute. Bateren bat ezagutzen baduzue eta animatzen bazarete, eman esku–orria.</li> </ul> <p>Noski, ikasleekin egin nahi dugun ekimenarekin ere lotu daiteke saio hau.</p>

<p>Hirugarren saioa (abenduan)</p>	<p>Abenduko saioan ere Euskaraldiari buruz hitz egin nahi dugula esango diegu. Hasteko, datu nagusienak emango dizkiegu: zenbat herrik parte hartu duten, zenbat Ahobizi eta Belarriprest aritu diren Euskal Herri osoan eta gure herrian...</p> <p>Ondo legoke Euskaraldiko bi-hiru bideo jartzea: Interneten herrietan egindako gero eta bideo gehiago daude eta horietako batzuk laburrak eta umoretsuak dira.</p> <p>Ondoren, beraien bizipen eta sententzietan buruz galdetuko diegu:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Non ikusi dute Euskaraldia? Inguruko batzuk aritu dira? Kanean ikusi dute jendea pin-arekin? Ekitaldietan parte hartu dute?</li> <li>- Beraiek ezin izan dute Ahobizi edo Belarriprest izan. Gustuko izango zuten parte hartzea? Berriz egingo balitz animatuko lirateke? Erraza edo zaila da Ahobizi eta Belarriprest izatea? Zeintzu izan daitezke zailtasunak?</li> </ul> <p>Euskararen egoerari buruzko mezu bat emango diegu:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Gero eta jende gehiagok daki euskara eta gero eta leku gehiagotan erabiltzen da.</li> <li>- Hainbat harreman lehendik erdaraz dira eta jende askok aldatu nahi luke euskaraz izateko. Hori ez da erraza, ohiturak aldatzea ez da erraza.</li> <li>- Horretarako dira modu honetako ekimenak. Aldatu nahi dutenei bidea errazteko.</li> <li>- Zuek ere behar bada euskara gehiago erabili nahiko zenukete. Horrelako ekimenez lagunduko ligukete guztioi.</li> </ul> <p>Aurrera begira ekimenen bat egiteko aukera irekita utziko dugu:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Behar bada aurrerago ere egingo dira horrelakoak. Euskal Herri osoan ez bada ere, gure eskolan egin ditzakegu. Zer iruditzen zaizue?</li> </ul>
------------------------------------	---

**LHko ikasleek etxean gurasoekin egitekoa:**

Ondorengo orri hau etxera eraman behar dute eta gurasoekin bete. Gurasoekin lasai bete dezatela. Benetako erantzunak nahi ditugu.

**ZENBAT EUSKARA DAKITE ETA ERABILTZEN DUTE GURASOEK?**

Aitari/amari/tutoreari galdetu ondorengoak:

**Euskarazko bost hitz polit esan:**

**Euskaraz burura datozkizuen hiru esaldi esan:**

<b>Ba al dakizue euskaraz?</b>		
Bai, ondo	Bai, pixka bat edo nahiko ondo	Ezer ez edo oso oso gutxi
↓	↓	↓
<b>Euskara erabiltzen al duzue? Asko edo gutxi?</b>	<b>Euskaraz dakizuena erabiltzen al duzue? Asko edo gutxi?</b>	<b>Euskaraz dakizkizuen hitzak eta esaldiak erabiltzen al dituzue? Asko edo gutxi?</b>
Norekin? (bai-ez, eta asko-gutxi erantzun behar dute) <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Seme-alabekin</li> <li>○ Bikotekidearekin</li> <li>○ Erosketak egiterakoan</li> <li>○ Beste gurasoekin</li> <li>○ Besteren bat?</li> </ul>		
Gutxi erantzun duzuen kasuetan: Zergatik?		

## ¿CUÁNTO EUSKERA SABEN Y UTILIZAN PADRES Y MADRES?

Pregunta en casa a tu padre y/o madre o tutor/tutora lo siguiente:

Cinco palabras bonitas en euskera:

Tres frases en euskera:

¿Sabéis euskera?		
Si, bien	Si, bastante	Muy poco o nada
↓	↓	↓
¿Utilizáis euskera? ¿Mucho o poco?	¿Utilizáis el euskera que sabéis? ¿Mucho o poco?	¿Utilizáis las palabras y frases que sabéis en euskera? ¿Mucho o poco?
¿Con quién? (Opciones: si o no, y mucho o poco) <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Con los hijos/as</li> <li>○ Con la pareja</li> <li>○ En los comercios</li> <li>○ Con otros/as padres y madres</li> <li>○ ¿En alguna otra situación?</li> </ul>		
En los casos que se ha respondido poco: ¿Por qué?		

## 2.- Euskaraldiko egunetarako zenbait ideia

<p>Aurkezpena</p>	<p>Euskaraldiko 11 egunetan zehar ikasleekin inguruan ikusten dutenaz hitz egin dezakegu eta mezu egoki batzuk eman ditzakegu. Kontuan izan ekimena telebistan ikusiko dutela, kalean karteletan, ekitaldietan, herriko hainbat jende pin-arekin eta abar.</p> <p>Azken batean: inoiz baino erreferente eta eredu gehiago izan ditzakete inguruan eta ekimena baliatu behar dugu horretaz konturatu daitezen eta horiekin harremanetan jartzeko.</p>
<p>Egunez eguneko erronka eta balorazioak</p>	<p>11 egun horietako bakoitzerako erronka edo etxerako lan zehatz bat aurkeztu diezaiekegu. Helburua ez da beraiek euskara gehiago erabiltzea, inguruan euskara gehiago erabili nahi duen jende asko dagoela ikustea baizik, eta euskara dakitenak eta erabiltzen dutenak behar bada gure ikasleek uste dutena baino askoz gehiago izatea.</p> <p>Beraz: erronka edo zeregin guztien ardatza eredu eta erreferenteekin harremana bilatzea izan daiteke. Zereginen ezaugarriak ondo neurtu: egiteko modukoa izan behar du, kasu gehienetan borondatezkoa izan beharko du eta gustura egiteko moduko zerbait izan behar du.</p> <p>Adibidez:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ezagutzen ez dituzuen bi Ahobizirekin argazkia atera eta ekarri. Galdetu zergatik diren Ahobiziak eta gustura ari ote diren.</li> <li>- Ezagutzen ez dituzuen bi Belarriprestekin argazkia atera eta ekarri. Galdetu zergatik diren Belarriprestak eta euskara gehiago erabiltzen ari ote diren edo besteek beraiekin gehiago egiten ote duten.</li> <li>- Ikasleei goxoki batzuk banatu eta ezagutzen dituzten Belarriprest edo Ahobiziei goxokiak emateko eskatu. Zoriondu eta animatu ditzatela.</li> <li>- Herrian egingo den ekitaldiren batera joatera gonbidatu.</li> <li>- Interneten Euskaraldiko bideoak bilatzeko eskatu. Aukeratu ditzatela bat edo bi gustukoak. Ikasgelan horiek jarri.</li> <li>- Herriko guneak ikasleen artean banatu eta bertan dauden eta Euskaraldiko logoa jarrita duten komertzioetan galdetegi txiki bat betetzeko eskatu: Jende gehiago joan al zaie euskaraz eskatzen? Beraiek gehiago egiten al dute? Pozik al daude?...</li> <li>- ...</li> </ul>



	<p>11 egun horietan 2 asteburu daude tartean. Beraz:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>-Lehen eguna astebururako proposamena egiteko izango da</li> <li>-Ondoren bost egun izango ditugu. Egun horietako bakoitzean tarte bat hartu beharko genuke ikasleekin aurrez bidalitako zeregin edo erronkari buruz hitz egiteko. Euskaraldia oso presente egotea nahi dugu eta aktiboak diren euskaldunekin harremanetan jartzea. Merezi du bost egun horietan tarte hauek hartzea.</li> <li>-Azken eguna astelehena izango da, abenduaren 3a, eta hainbat ikastetxetan Euskararen Eguna ospatzeko ekitaldiak egingo dira. Horrela bada, ez da egun egokia Euskaraldiari buruz hitz egiteko. Hobe bi edo hiru egun uztea eta beste saio batean horri buruz hitz egitea. Adibidez: aurreko puntuan proposatutako hirugarren sentsibilizazio saioa egokia da horretarako.</li> </ul>
<p>Hamaika egunetarako dinamika edo ariketa</p>	<p>Hamaika egun horietan zehar ikasleek euskara gehiago erabil dezaten ere saia gaitzke eta beraiei ere Euskaraldiak proposatzen duen ariketa soziala eskaini. Baina ikasleen ezaugarrietara egokitu behar dugu, Euskaraldia helduei begirakoa da eta ezaugarri jakin batzuen arabera garatu da.</p> <p>Ez.</p> <p>Ez erabili Ahobizi eta Belarriprest pin-ak ikasleen artean banatzeko. Ikasleei ekimena proposatu nahi badiezue izena eta irudia, pixka bat bada ere, aldatu. Ikus dadila ikasleei begirako ekimena dela.</p> <p>Adibidez: Eskolako Ahogozoak, Ikastetxeko hiztunak edo dena delakoa. Herri mailako helduen ekimena eta gure ikasleena ez nahastea komeni da, lotuta egitea ondo dago baina arriskua dugu haurren ekimen moduan ikusteko eta hori baino askoz gehiago da Euskaraldia.</p> <p>Ez.</p> <p>Ez proposatu besterik gabe Ahobizi edo Belarriprest izan nahi ote duten. Hobe beste figura bat sortzea eta ikasleen ezaugarrietara egokitzea. Gure ikasleentzat oso zaila da benetan Ahobizi eta Belarriprest rolek zer esan nahi duten eta zer eskatzen dien ulertzea edota barneratzea. Hau da: oso zaila da beraientzat hori ondo betetzea. Jarri zuen ikasleen lekuan: benetan Ahobizi izateko prest egon daitezkeen horiek lortuko dute beraien adin beretsuko guzti guztiekin 11 egunetan erabat euskaraz egitea? Hori da Ahobizi izatea beraien kasuan.</p> <p>Ez.</p> <p>Ez duzue lortuko horrelako ekimenekin ikasleen hizkuntza-ohiturak aldatzea. Behar bada testuinguru euskaldunetan lagundu dezake, baina ez besteetan. Eta ez pentsatu ekimenean parte hartzeko prest daudelako beraientzat erraza denik edota erabileraren ardura beraiena denik: ariketa dena delakoa izanda ere, zuek lagundu behar diezue lortzen.</p>

Bai.

Bai. Ekimena moldatu. Izen berri bat jarri eta 11 egun horietan egin. Erronka edo zeregina ere moldatu. Hainbat modutara egin daiteke:

- 11 egun horietan zehar euskara gehiago erabiltzeko ahalegina egin behar dute (horrek ez du esan nahi denbora osoan egin behar dutenik, ahalegindu behar dutela soilik). Egunero tarte batean baloratu egingo dugu ahalegindu diren.
- Guztiei (edo prest daudenei) 11 egunetan euskara gehiago erabiltzeko proposatzea baino, egun bakoitzerako erronka zehatz bat proposa daiteke: gaur patioa, gaur pasiloa, gaur jantokia... Ez du esan nahi beste tarteetan ez dutenik ahalegindu behar, baina bereziki momentu horietara ekarriko dugu ahalegin kontzientea, beraiantzat lortzea errazagoa izan dadin.
- ...

Bai.

Bai. Ekimen hau jarreretan kokatzen da batez ere. Hizkuntza-ohiturak ez ditugu aldatuko baina euskara gehiago erabiltzeko ahalegina sentsazio eta bizipen positiboekin lotu dezakete. Jarrerei begira hori oso garrantzitsua da. Ez hartu kontuan zer gertatzen den Euskaraldiaren ondoren eta baliatu egun horiek beraiek gehiago erabiltzeko ahalegina egitera begira eta guk horri errefortzu positiboak ematera begira.

Bai.

Bai. Irakasleek Hezitzaile Berritsu oso aktiboak izan beharko duzue Euskaraldian zehar. Pasiloetatik eta patioan asko ibili, elkarrizketa askotan parte hartu... Lagundu behar diegu euskara asko erabiltzen, proposatutako ariketak betetzen eta, gu horrela bagabiltza, askoz errazagoa izango da errefortzu positiboak ematea edota ahalegin txikiak eskatzea beraiekin balorazioak egiten ditugunean.

### 3.- Gurasoen eta ikastetxeko beste eragileen inplikazioa bilatzea

<p>Eragileen parte hartzea sustatzea eta ikusgarri egitea</p>	<p>Euskaraldian ikastetxeek parte hartzeko bide eraginkorrenetako bat bertako eragileen inplikazioa bilatzea da:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Irakasleak</li> <li>- Gurasoak</li> <li>- Jantokiko hezitzaileak</li> <li>- Eskolako beste langileak</li> <li>- Eskola orduz kanpoko jardueretako hezitzaileak</li> </ul> <p>Batetik, izen-ematea sustatu daiteke: eskolako eragile guztiak Ahobizi edo Belarriprest izan daitezten lanketa egin. Azaldu, girotze lana egin, esku-orriak banatu eta abar. Ez zarete irakasleak soilik, ikastetxean eragile gehiago daude eta horiek parte hartzea ere oso garrantzitsua da.</p> <p>Bestetik, Euskaraldiko 11 egunetan zehar bisualizatu egin behar da parte hartze hori:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Eskolan panelak jar daitezke eta bertan izena eman dutenen argazkiak, horien komentarioak, eta abar.</li> <li>- Ikasleekin hortaz hitz egin daiteke eta ikus dezatela zenbatak parte hartzen duten.</li> <li>- Familiei horren berri emateko ohar bat edo presta daiteke, izena eman duten guztiekin argazki bat atera, eta abar.</li> </ul>
<p>Gurasoentzako mezua</p>	<p>Ondorengo lerroetan gurasoei begirako hainbat mezu aurkezten ditugu. Guraso bileretan edo etxera bidaltzen zaizkien oharretan Euskaraldiaren berri eman nahi baduzue, behar bada lagungarri izan dakizueke ondorengoak. Kontuan izan euskaraz ulertzen duten gurasoek soilik parte har dezaketela baina beste gurasoek ere jarrera egokia izatera begira mezu egokiak ematea komeni da.</p> <p>Hauxe da helburua:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Euskaraz dakitenak edo gutxienez ulertzen dutenak parte hartzera animatu: seme-alabentzat oso eredu onak izango dira</li> <li>- Euskara ez dakitenek jarraipena egin dezakete eta ekimenarekiko jarrera ona erakutsi: seme-alabek euskara balio indartsuekin lotzeko modua izan daiteke.</li> </ul> <p>Euskaraldiaren ezaugarri nagusienak aipa daitezke:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Euskararen inguruko ekimen berri bat Euskal Herri osoan zehar.</li> <li>- Azaroaren 23tik abenduaren 3ra.</li> </ul>

- 400 herri baino gehiago.
- Bi aukera egongo dira: Ahobizi izatea edo Belarriprest izatea.
- Ahobizi: euskaraz ulertzen dutenekin euskaraz egingo dut nahiz eta batzuk erdaraz erantzun. Ulertzen badit euskara mantenduko dut. Harreman berriak euskaraz sortzen saiatuko naiz.
- Belarriprest: ahobiziak gonbidatzen ditut nirekin euskaraz egitera nahiz eta behar bada nik erdaraz erantzun.
- Ekimenaren helburua euskarazko harremanak indartzea da: lehendik erdaraz diren asko euskaraz izatea, edo harreman berriak euskaraz sortzea.
- Gure herrian horretarako aukerak daude: euskararen ulermen maila \_\_\_ da. Hau da: herriko ehuneko \_\_\_\_ ulertzen du euskara eta euskaraz egin nahi duenak horiekin guztiekin egin dezake.
- 16 urtetik gorakoentzat da.
- Euskaraz ez dakitenek ezin dute izena eman: ez dira ez Ahobizi ez Belarriprest. Baina beraien jarrera oso garrantzitsua da.

Eskolak parte hartuko du eta parte hartzera animatzen zaituztegu:

- Irakasleok parte hartuko dugu egitasmoan.
- Eskolako guraso eta langileak ere animatzea nahi genuke.
- Seme-alaben onurarako izango da.
- Euskararen erabilerak gora egiten badu, beraien euskara gehiago erabiltzeko aukera izango dute: euskara ondo ikasteko garrantzitsuena asko erabiltzea da.
- Euskararekiko jarrerak lantzeko ere oso ona da: ikusiko dute helduak ere ahalegintzen direla euskara asko erabiltzen eta harreman berriak euskaraz sortzen. Euskara ez dute eskolarekin soilik lotuko eta eredu eta erreferente berriak izango dituzte.

Zer proposatzen dizuegu gurasooi?

- Euskara ulertzen duzuen guztiok ekimenean izena ematea: Ahobizi edo Belarriprest izatea. Izen-ematea irekita dago.
- Euskaraz ulertzen ez duzuenok inguruko euskaldun guztiak animatzea parte har dezaten.
- Horretaz gain:
  - o Seme-alabekin ekimenari buruz hitz egitea: telebistan agertzen denean, triptikoak banatzen direnean...
  - o Ekimenarekiko jarrera positiboa erakustea: parte hartu ezin duzuenok ere ikusi behar duzue zuen seme-alaben onurarako izango dela.

#### 4- Herriko ekitaldietan eta Euskaraldiko Batzordean parte hartzea

Ikastetxeak herriko Euskaraldiko Batzordean parte hartzea eta eragile izatea, noski, egokia da eta beharrezkoa hainbat herriren kasuan. Kontuan izan euskararentzat arnagune nagusienetakoa eskola dela hainbat eta hainbat herrietan.

Gainera, eragile izateaz gain, garrantzitsua da herrian egiten diren ekitaldietan parte hartzea:

- Familiak gonbidatzea ekitaldi horietan parte hartzera
- Ikasleekin jarduera batzuk egitea
- Eta abar.

Ziur ikastetxe gehienetan dagoeneko norabide honetan lanean ari zaretela. Primeran!